



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2023ko urtarilaren 9ko bilkura

Bi mila eta hogeita hirugarren urtean, urtarilaren bederatzian, zazpitan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

**Hor zirenak** : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : AYÇAGUER Elorri

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : LEKUMBERRY Xantxo

Deialdiaren eguna : 2023ko urtarilaren 5a

Afitzatze eguna : 2023ko urtarilaren 5a

### 1. ERABAKIA : INBERTSIO GASTUEN KONTUAN HARTZEA, HASIERAKO AURREKONTUA BOZKATU AITZIN

*(7.10 nomenklatura)*

Auzapezak biltzarkideei oroitarazi die Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L. 1612-1 artikulua arabera, Auzapezak, Herri Biltzarraren baimenarekin, inbertsio gastuak gauzatu, likidatu edo agindu ditzakeela, beti ere aitzineko kontu ekitaldiko aurrekontuko kreditu irekien laurdena gainditu gabe, hots 743 961 euro.

Baimen hori ezinbestekoa da, urte hastapenean herriak inbertsio gastu berriak egin behar dituenetarako, ezin baitu aurrekontuaren bozkaren beha egon.

Auzapezak biltzarkideei azaldu die honakoa dela baimena eskatzen duen gastua:

2022ko errepede programazioa: 82 000 euro, 2151 artikuluko 107 Ekintza -Errepideak

Zehaztu du, horretarako kredituak badirela aurrekontuan.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

**-BAIMENA AMEN DIO, Auzapezari, inbertsio gastuen gauzatu, likidatu eta agintzeko, beti ere aurrekontuan irekiak diren kredituen laurdena gainditu gabe, honako ekintzarentzat:**

- 2022ko errepede programazioa: 82 000 euro, 2151 artikuluko 107 Ekintza -Errepideak

Kide kopurua : 15  
Hor zirenen kopurua : 14  
Balizko boz kopurua : 14  
ALDE : 14  
KONTRA : 0  
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2023ko urtarrilaren 9an  
Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2023/01/11n publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/01/11n.